




Emazteak eta sekuentzia

 Garazi Goia

Bat. Hadley Richardson. Lehenengo emaztea. Hemingwayren lehenengo liburua izan behar zena Parisko Gare de Lyon geltokian galdu zuen. Erru sentsazio hura barrenean eramango zuen ordutik aurrera Hadleyk. Antibesera zihorazaz oporraldi bat pasatzera Hadley eta Hemingway. Baita Fife ere. Orduan Hemingwayren maitalea zena. Itsasora igeri egitera joaten zirenean, ur azpian segundo batzuetarako desagertzeko ere jelsiak oztopatzen zuen Hadley. Leherrean beste bien artean zer gertatuko ote zen beldurrak gain hartzen zuen. Non

zegoen arrastoa, okerra eta zuzena bereizten zituen arrasto hura? Ez zegoen arrastorik. Hirurek zekiten ez zegoela arrastorik.

Bi. Pauline *Fife* Pfeiffer. Bigarren emaztea. Hiru hilabete eman zizkion Hadleyk Hemingwayri bera edo Fiferen artean bat aukeratzeko. Fife aukeratu zuen azkenean. Hiru izatetik bi izatera pasatu ziren. Parisko bizitza soiletik Floridan Key Westeko eguneroko erosora joanez. Imajinatu egoera hau: Fife zain dago, etxean, Hemingway Espainiako Gerra Zibiletik itzultzeko zain. Zain dagoen

bitartean, hirugarren emaztea bihurtuko zena azaltzen da eszenan garai horretan. Baita Fife eta Hadley arteko elkarrizketan ere. Finean, biak egon dira egoera berdinean, hirugarren bat azaltzen den egoera horretan. *Affaire* itsu batean kateatuta. Hemingway Espainiatik itzuli osteko egunean, Martharen eskutitzak deskubritu zituen Fifek. Zein dramatiko.

Autoa hartu eta auzoko elizara joan zen, Jainkoari galdetzera ea hura al zen bere zigorra, urte batzuk aurrerago Hadleyri egin zionagatik. Ondoren, festa hura antolatatu zuten, etxean. Maskarak jantzita zeuzkaten denek. Abeslaria hunkitu egin zen abesten ari zen bitartean, negarra atera zitzaion, melodia haiek azaleratzen. Fife ere negarrez hasi zen. Requiem bat zirudien. Martha festa hartan zegoen. Hemingway betiko galdu zuela konturatu zen unea izan zen hura Fiferentzat.

Hiru. Martha Gellhorn. Hirugarren emaztea. Martharen aita Hadleyren ginekologoa izan zen, urte batzuk aurrerago. Kasualitatea. Hori baino freudiarrago den egoera bat irudikatzea ezinezkoa dela iruditzen zait. Espainiako gerra zibilaria buruz erreportajeak egiten zituen Hemingwayrekin batera Marthak. Hoteletako logelak partekatu zituzten biek. Marthak ez zuen ezkondu nahi. Gerrako kazetaria izan zen. Baina Hemingwayk konbentzitu egin zuen, hirugarren ezkontza izango zela zorionekoa esanez. Lau. Mary Welsh. Laugarren emaztea. Maryk irakurri zituen Hemingwayk gordetako eskutitz eta zirriborro guztiak. Maryk eman zien Hemingwayren heriotzaren berri denei. Emazte ohie ere bai.

Denek bazekiten infernua leku berezi bat zegoela haiek bezalako emakumeentzat, horrelako gauzak beste emakume bati egiteagatik. Hori Fifek esana da. Hiru pertsonako ezkontza bat emakume bat bakarrik egotea baino hobetagoa da. Hori zen teoria.*

«Emazte bakoitzaren esperientziak argitara eman nahi nituen: batzuk ezagunak dira, beste batzuen izen ona zikindua izan da, eta beste batzuk berriz ahaztuak izan dira»

Garazi Goia: **Hemingwayri buruz gauza asko entzun eta irakurri ditugu, baina emazteek eta maitaleek bere bizitzan izan zuten eragina ulertzean idazleari buruzko beste perspektiba bat ematen digute. Zergatik aukeratu zenuen ikuspegi hori?**

Naomi Wood: Beti interesatu izan zaizkit Hemingwayen idatziak, baina bere eskutitz batzuk irakurtzen ari nintzela sortu zitzaidan nobela hau idazteko inspirazioa eta bere lau emazteen –Hadley, Pauline, Martha eta Mary– perspektibatik kontatutako bizitzari buruz idazteko ideia. Hemingwayk ohikoa zuen idazteko estilotik oso ezberdinak dira esku-

titzak. Bere nobeletako prosa hotz eta zuzena ez da ikusten eskutitzetan. Eta, bereziki emazteei idazten zizkien eskutitzetan are gehiago ikusten da ezberdintasun hori; bere sentimenduak eta hitz eztiz beteak aurkitu nituen. Afrikara ehizara joaten zen, edo boxeoa zebilen edo zezenketetara joaten zen Ernest Hemingway ausartarekin zerkusirik ez zeukan. Senar paperean, benetako pertsona hura nolakoa izan zen ulertu ahal izan nuen eskutitzen bidez, eta orduan sortu zitzaidan liburua idazteko ideia.

Garazi Goia: **Labur-labur nola deskribatuko zenuke emazte bakoitza?**

Naomi Wood: Liburua idaztean emazte bakoitzaren esperientziak argitara eman nahi nituen: batzuk ezagunak dira, beste batzuen izen ona zikindua izan da, eta beste batzuk berriz ahaztuak izan dira. Benetan txunditu ninduten emazteen elkarren arteko loturak. Eta, nola urteetan zehar emazte eta maitaleen arteko joan-etorri berezi horrek irau zuen.

Hadley, lehenengo emaztea, eskola bateko ikuskizun batera joan zen eta Martha, oraindik neskatoa zela, antzezle nagusia zen.

Pauline Pfeiffer, bigarren emaztea, Hadleyren lagun mina izan zen dibortzioaren aurretik.

Ondoren, Martha Gellhorn azaldu zen, Ernesten bigarren maitalea eta hirugarren emaztea, Ernest eta Fiferen lorategian eguzkia hartzen asteak eman zituen (Fife Hadleyrengana gerturatu zen modu berean).

Eta Mary, laugarren emaztea, kazetari moduan ibili zen lanean eta bere nagusia Hadleyren bigarren senarra izan zen (Hemingwayrengandik banandu ostean).


ekaina

liburu gomendatua

Naomi Wood MRS. HEMINGWAY

Ernest Hemingway idazleak emakumeekin izan zituen harremanak gatazkatsuak izan ziren; segur asko emakumeekin zeuzkan harremanetan ematen zuena baino askoz gehiago jasotzea espero zuelako. Ezkontza ordenatua desiratzen zuen emakume ezberdinekin oheratzea bezainbeste eta horregatik beharbada bikotez-bikote ibili zen. Bizitzan zehar lau emazte izan zituen eta Naomi Wooden eleberri koral honetan laurak agertzen dira: idazlearekin Parisen bizi izan zen eta bere lehen semearen ama izan zen Hadley Richardson; hasieran amorante eta gero emazte izan zen Pauline Pfeiffer *Fife* aberatsa; Espainiako guda zibilean harekin batera gerra-berriemaile izandako Martha Gellhorn eta ezkondukoan kazetari lanbidea utzi zuen Mary Welsh; 1961ean, guztiei Hemingwayren heriotzaren berri eman ziena, baita hiru emazte ohiei ere.

Aldaketa
maiatzaren
25a
baino lehen



0506039 TXALAPARTA

ELEBERRIA

384 or.

Salneurria 18,90 €

Bazkideak 15,10 €

Itzultzailea: Garazi Goia



Naomi Wood 1983an jaio zen Yorken eta Londresen bizi da. Cambridgen eta East Angliako Unibertsitatean ikasi zuen. 2011. urtean *The Godless Boys* eleberria idatzi zuen eta, 2015ean bere bigarren eleberria, *Mrs. Hemingway*. Liburu honek Jerwood eta Dylan Thomas sariak irabazi ditu eta *New York Times Book Review* edota *Daily Telegraph* komunikabideek egiten dituzten urteko liburu onenen zerrendetan nabarmendu dute.